

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2023-12-20(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

11.- LURRE HURRE ALKARTEAGAZ 2023KO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

Pertsona migranteekaz martxan daukeen proiektuagaz jarraitzeko Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza bultzateko Lurre Hurre alkarteagaz lankidetza hitzarmena sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza bultzateko Lurre Hurre alkarteagaz alkarlanean pertsona migranteekaz proiektuagaz jarraitzeko lankidetza hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2023ko azaroaren 27an, Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon dauz.

Hirugarrena: 2023ko abenduaren 13an, udal kontu hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena emon dau.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauen 7/1985 Oinarri Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen dauen 33/2003 Legearen 137.4.c) artikulua, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak, eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28.1 artikulua hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikuluen b), f) eta s) atalen, eta Sektore Publikoko



Kontratuen 9/2017 Legearen II. Xedapen gehigarriaren arabera, alkateari jagoko, baina 2023ko ekainaren 29ko 3.096 zenbakidun Alkatetza Dekretuz, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatzea onartu zan.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Almika auzoan Bermeoko Udalak erabiltzen ez dauzen lur batzuetan eta basetxean pertsona migranteekaz formakuntza proiektua garatzen jarraitzeko, eta 2023. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza bultzateko Lurre Hurre alkatteagaz lankidetzat hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Nadia Neme Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinetan sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000E4BDC00G9H9Q3N6C311

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA -
20/12/2023
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/12/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/12/2023
23:50:37

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0195
Data: 27/11/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

